

Biocruces Bizkaia eraikin berria osasun-arloko ikerketa eta berrikuntzako ekipamendu erreferente bihurtu da

Eusko Jaurlaritzako lehendakariak gaur inauguratu du eraikin berria, euskal gizarteko politika, ekonomia, zientzia-teknika eta hezkuntzaren munduko eragilez lagunduta

Eraikin berriari esker, lurraldeko ikerketa berregituratuko da; hala, aurrerantzean Biocruces Bizkaia Ikerketa Institutua deituko da eta Bilbao-Basurtu eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESletako eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko ikerketa-jarduerak bateratuko ditu

Iñigo Urkullu lehendakariak lurralde historikoko osasun-ikerketa publikorako eraikin berria inauguratu du gaur, Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua deiturikoa (lehen, Biocruces). Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planean (ZTBP) eta 2020rako Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategian definitutako estrategiekin lerrotatuta, **ekipamendu berriak Bilbao-Basurtu ESiko, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESiko eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko ikerketa-jarduerak bateratuko ditu.**

Eraikin berria, Biocruces Bizkaia izenekoa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ospitale-barrutian kokatuta dago. **Guztira, 6.131 m²-ko azalera eraikia dauka**, soto, erdisoto, beheko solairu eta beste lau solairutan banatuta. **Eraikina egiteko 20 milioi euro inguruko inbertsioa egin da, eta horretarako, Europako funtsen eta Carlos III.a Osasun Institutuaren laguntza jaso da.**

Eusko Jaurlaritzako lehendakariak honako hau adierazi du: **«Eraikin moderno hau euskal ikerketa-komunitateak duen ahalmen gero eta**

handiagoaren adierazlea da. Euskadiko osasun-sistema publikoak ikerketaren eta berrikuntzaren alde egindako apustuaren ikurra».

Lanak 2015eko urrian hasi ziren eta aurreikusitako epean bukatu dira, 2017. urtearen amaieran. Geroztik, **eraikin berria teknologia modernoenez eta beharrezko baliabide guztiez** hornitu da, 800 inguru ikerlariei beren ikerketa-lana modu lehiakorrean egin ahal izateko beharrezko tresnak emateko. Mikroskopia Fokukideko plataformak, Zitometria, zelula-kultiboak egiteko eremuak, analisi genetikoak egiteko azpiegitura berriak, etab.

Solairu eta fatxadei dagokionez, irtenbidea –Institutuaren Plan Funtzionalarekin bat dator– honako hau da:

- **Sotoa:** animaliategi-plataforma eta animaliekin esperimenduak egiteko unitatea.
- **Erdisotoa:** deskargatzeko nasa, animalien estabulazio-eremua, eremu kirurgikoa, kriokontserbaziorako eremua.
- **Beheko solairua:** sarrera, zuzendaritzako eta kudeaketako eremuak.
- **Lehenengo solairua:** zelula-kultiboetarako plataforma, fluxu-zitometria eta mikroskopia, laborategiak eta hozte-gelak.
- **Bigarren eta hirugarren solairuak:** kudeaketako eremuak, laborategiak eta hozte-gelak.
- **Laugarren solairua:** kudeaketa-eremuak, bilera-gelak, jantokia, eta atsedenguneak.

Biocruces Bizkaia

Eraikin berriaz gain, Biocruces Bizkaiaren egiturak orain arte ikerketa-jarduerak egiteko erabiltzen ziren **beste bi espazio** dauzka, **Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean**. Ekipamendu horiek beste 700 eta 1.200 m² dauzkate, hurrenez hurren, ikerketa- eta berrikuntza-jarduerarako.

Euskal gizartearentzako mugarrria

Azpiegitura berria martxan jartzea **euskal gizarte osoarentzako mugarri bat** da. Ildo horretan, euskal gizarteko ordezkari asko izan dira Iñigo Urkullu lehendakariak, Jon Darpón Osasuneko sailburuarekin eta Institutuko zuzendari zientifikoa Luis Castañorekin batera, egindako aurkezpenaren lekukoak. Eusko Jaurlaritzaren ikerketa- eta berrikuntza-estrategia garatzeaz arduratzen diren pertsoez gain, honako hauek izan dira bisitan ekipamenduan:

Alde batetik Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Kontseiluko kideak; Hezkuntzako eta Ogasuneko sailburuak; UPV/EHUko errektorea eta Deustu eta Mondragon unibertsitateetako errektoreak eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakarietzako idazkaria.

Bestetik, Barakaldoko alkatea; Carlos III.a Institutuko zuzendaria; BBKko presidentea; eta Biodonostia, Bioaraba eta zenbait osasun-institutuetako zuzendariak.

«Eraikin hau osasun-sistemak herrialdearen hazkunde sozial eta ekonomikoan eta gizarte-kohesioan egindako ekarpen bat da. Euskadiko bizi-kalitatean eta ongizatean egindako inbertsio bat», azaldu du Iñigo Urkullu lehendakariak.

I+G+b-aren aldeko apustua

Eraikin berriarekin, Biocruces Bizkaia jaio da. Bizkaiko ikertzaile guztiak eta hala nahi duten kide eta kolaboratzaile guztiak biltzeko asmoa duen

osasun-ikerketako institutua. Eraikin moderno hau **eraberritzearen eta euskal ikerketa-komunitatearen ahalmen gero eta handiagoaren erakuslea da.**

Iñigo Urkullu lehendakariak bisitaldian esan duenez, **«Biocruces Bizkaiak ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua islatzen du, euskal osasun-sistema osoarentzako aurrerapauso bat da. Sistema horren antolaketaren oinarria hiru ikerketa-institutu dira: Biodonostia, Bioaraba eta Biocruces Bizkaia berria. Antolaketa-eredu berri horrek osasun-sistemak Euskadiko I+G+b-an funtsezko rola duela erakusten du».**

«Biocruces Bizkaia ikerketa biomediko traslazionaleko motor bat da eta ikerketaren emaitzak pazienteen osasunaren mesederako erabiltzea du helburu. Pertsoneri mesede egingo die, baina baita osasun-sistema osoari ere», erantsi du Iñigo Urkullu lehendakariak.

Herritarren zahartzeak eta kronikotasunak ekarritako erronkei aurre egin behar diegu, baita teknologia berriek, edo hobe esanda, hainbat teknologiaren garapen azkarrak –adibidez, big datarenak, adimen artifizialarenak, eta abar– ekarritakoei ere, eta erronka horiek elkarlanean jorratu behar ditugu.

Ildo horretan, Iñigo Urkullu lehendakariak honakoa azaldu du: **«Institutu hau elkarlanerako plataforma bat da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen parte da. Unibertsitateen, Ikerketa Zientifikoko Zentroen, BERCen eta teknologia-zentroen osagarria da. Eragile eta enpresen arteko elkarlana barne hartzen du, elkarlanetik produktu, prozesu eta zerbitzuak garatzeko aukerak sortzen direlako.**

Biocruces Bizkaia nazioartekoa izateko helburuarekin ere jaio da eta Europako beste Bioeskualde batzuekin elkarlanean arituko da, Horizon 2020 proiektuen bitartez».

Biocruces Bizkaia, **halaber, XXI. mendean I+G+b jarduerak beren eguneroko lanean erabiliko dituzten osasun-arloko profesional belaunaldi berriei laguntzeko plataforma bat da.**

«Biocruces Bizkaia bio-osasunaren alde, RIS3 espezializazio adimenduneko estrategiaren giltzarri gisa, egindako apustuaren adibide bat da. Ikerketa-arlo horrek Euskadin ehun enpresa baino gehiago biltzen ditu», adierazi du Iñigo Urkullu lehendakariak.

Biocruces Bizkaia Institutua (prozesu historikoa)

Prozesua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean hasi zen. Ospitale hori asistentziaren, irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan osasun-erreferente izan da, urte askoan. Hain zuzen ere, bere Ikerketa Unitatea antzinakoenetakoa da, FISek (Osasun Ikerketarako Fondoa) 1993an akreditatu zuen, eta hasieratik, Carlos III.a Osasun Institutuko ikerketa-egituretan (RETICS, CIBERak eta plataformak) parte hartzen du.

2008. urtean Biocruces sortu zen, eta 2015ean ikerketa-institutu akreditazioa lortu zuen, Carlos III.a Osasun Institutuak proposatutako strategiari jarraituz. Zehazki, osasun-ikerketako institutuak ospitaleetan ikerketa sustatzeko eta gauzatzeko antolaketa-egitura gisa garatzea proposatu zuen, honako xede hauekin:

- Biomedikuntzaren, epidemiologiaren, osasun publikoaren eta osasun-zerbitzuen arloetan ikerketa sustatzea
- Osasun-sistemako programei eta politikei oinarri zientifikoa ematea
- Ikerketa traslazonala (ezagutzak ospitale-prozesuan aplikatzea) lehentasunez bultzatzea.

2018an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bere estrategia berria definitu du. Ondorioz, Biocruces Bizkaia izena hartu du eta Osakidetzako Bizkaiko lau Erakunde Sanitario biltzen ditu: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, Bilbao-Basurtu, Barrualde-Galdakao ESlak eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea. Berau osatzen duten erakundeak hauek dira: Osasun Saila, Osakidetza, Bioef, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), eta BBK Fundazioa.

Biocruces Bizkaiak aliantza-sare bat eratu du bioteknologiaren arloko hainbat eragilerekin. Aliantza horren barruan, CIC bioGUNE, BCAM eta Ikerbasquerekin egindako akordioak nabarmentzen dira. Helburu nagusi gisa, bere ezagutza asistentzia-praktikara bideratzen du:

- **Biomedikuntzaren, epidemiologiaren, osasun publikoaren eta osasun-zerbitzuen arloetako ikerketak sustatzea.**
- **Ikerketa traslazonal bultzatzea**, aurkikuntza zientifiko aurreratuenak asistentzia-praktikara azkarrago transferitzeko.
- **Osasun-sistemako programei eta politikei oinarri zientifikoa ematea**; osasun-zerbitzuen kalitatea indartzea, aurrerapen zientifikoak gaixotasunen prebentzioan, diagnosian eta tratamenduan modu eraginkorrean aplikatuz, zeinak pazienteak modu eraginkorragoan zaintzea eragingo duen.
- **Praktika klinikoak eta ikerketa zientifiko aurreratuak bat egitea eta ezagutzak enpresa-sareari transferitzea bultzatzea.**

Biocruces Bizkaiaren egitura zientifikoa

Ikertzaileen taldea **kualifikazio handiko 800 profesional**ez osatuta dago. Profil oinarrizko eta kliniko osagarriak dituzte eta, doktoratu aurreko langileekin eta teknikariek batera, gure garaiko giza patologia garrantzitsuenekin lotutako galdera giltzarriak erantzuten saiatzeko lerro zientifikoak garatzen dituzte.

Biocruces Bizkaia Institutuaren lerro zientifikoak honako hauek dira:

- **Lehen mailako arreta, prebentzioa eta gaixotasun kronikoak.**

Arlo horretako ikertzaileek osasunaren determinatzaile nagusien gaineko esku-hartze berritzaileak diseinatu eta ebaluatzen dituzte, esaterako: bizi-ohituren gainekoak (elikadura, jarduera fisikoa, tabakoa, alkohola) eta gaixotasunekin lotutako bestelako arrisku-faktoreen gainekoak (hipertentsioa, dislipemiak, diabetesa, obesitatea, estresa).

- **Minbizia.**

Minbizia 200 gaixotasun ezberdinetik gorako talde heterogeneoa da. Herrialde garatuetan, eragin sanitario eta sozial handieneko osasun-arazoetako bat da, bere intzidentzia eta hilgarritasunagatik, sortzen dituen ondorioengatik eta eragiten duen baliabide sanitarioen kontsumoagatik. Azken hamarkadetan ikusi da minbiziak intzidentzia handiagoa izan duela, hainbat arrazoiengatik: biztanleriaren bizitzaluzera handiagoa, osasunerako irismen hobea, ingurumen-faktoreak, bizi-estiloak eta kontsumo-ohiturak eta teknologia diagnostiko berriak, aukera ematen baitute diagnostiko goiztiarrak eta ustekabekoak egiteko. Ikerketaren esparruak barne hartzen ditu neoplasia gaizto solido guztiak eta hematologikoak, alderdi guztietan: epidemiologikoak, alderdi kliniko soilak eta biologikoak. Taldeen helburua minbizia ikertzea izango da, oinarrizko mailan, maila aplikatuan eta maila klinikoan. Jarduerak, hein handi batean, arreta jarriko du oinarrizko zientzia biomedikoen eta onkologia aplikatuaren artean harreman aberatsa eta produktiboa izaten lagunduko duten alderdi translazionaletan, halako moldez non emaitzek pazienteentzako eta gizarte osoarentzako onura zuzena ekarriko duten.

- **Endokrinologia, Metabolismoa, Nutrizioa eta Giltzurruneko Gaixotasunak.**

Arlo honetan garatzen diren ildoak honako hauek dira: alterazio tumoral neuroendokrinoak aztertzea, molekulak eta ehunak karakterizatuz tratamendu eraginkorragoa eman ahal izateko; sortzetiko hainbat nahasmendu metaboliko ikertzea, bai lipidoena, karbohidratoena, bai aminoazidoena, prebentzio-lan egokia egin eta tratamendu goiztiarra eman ahal izateko estrategia diagnostiko goiztiarrak definitzen saiatzeko; eta kaltzioa/fosforoa nahasmendu metabolikoak eta giltzurrunetako tubulopatiak nahasmendu klinikoaren karakterizazio genetikoaren egiteko eta estrategia terapeutiko eraginkorragoak definitzeko ikerketa-arlo gero eta indartsuagoak dira.

- **Gaixotasun autoimmuneak, inflamatorioak eta infekziosoak.**

Arlo horretako ikerketa-ildoak elementu komun hau du: askotan inflamatorioak, ingurumenak eragindakoak, infekziosoak, metabolikoak edo autoimmuneak direla eta normalean kroniko bihurtzen direla. Helburu nagusia pazienteen pronostikoa eta bizi-kalitatea hobetzea da. Gainera, gaixotasun horien eragin sozial eta ekonomiko gero eta handiagoa arintzen lagundu beharko luke.

- **Nerbio-sistemako gaixotasunak.**

Arlo horretan garatzen diren ildoak honako hauekin lotuta daude: korrelazio kliniko-patologikoarekin (azterketa klinikoak eta neuropatologikoak), neurologia funtzionalarekin, neuroirudi-tekniken bidezko diagnostikoaren eta jarraipenaren bitartez (EMN funtzionala, PETa) eta markatzaile biologikoen azterketan sakontzearekin. Hori guztia, bizi-kalitatea hobetzeko eta gaixotasun horien eragina murrizteko helburuarekin.

- **Kirurgiaren, transplanteen eta osasun-teknologiaren berrikuntza.**

Arlo horretan garatzekoak diren ildoak honako hauetara bideratuta daude: kirurgiaren arloko askotariko teknologia eta berrikuntzatarara eta traslazio azkarra ahalbidetuko duten klinikatik oso hurbileko prozedura eta dispositibo klinikoetara, baita pazientearen kalitatearekin eta segurtasunarekin lotutako prozedura eta dispositiboetara ere. Arlo horretan, bioinformatika algebraikoa eta medikuntzan aplikatutako konputazio-metodoak asko garatzea planteatzen da.

- **Ama-haurren osasuna eta laguntza bidezko ugalketa.**

Ikerketa-ildoak honako hauek dira: fetuaren osasuna zaintzea, bihotzean, garunean eta begietan eragiten duten sortzetiko malformazioak aztertzea eta gaixotasun genetiko batzuen diagnostikoan aurrerapausoak ematea, bereziki, adimen-desgaitasunari eta gaixotasun hereditarioei, minbizia pediatrikoari –batez ere, garuneko tumoreak eta minbizia izateko aurrejoera genetikoak– eta gaixotasun arraro batzuei dagokienez –esaterako, histiozistosia edo osteogenesi inperfektua–, eta zainketa kritiko pediatrikoa. Horrez gain, arlo horretan ugalketaren eta fetuaren, emakume haurdunen eta jaioberrien osasuna hobetzearen inguruko ikerketa eta berrikuntza egiten da. Animalien bidezko esperimendazioa, oinarrizko ikerketa eta azterketa klinikoak ezinbestekoak dira antzutasunaren, haurdunaldiaren, erditzearen eta fetua sortzen denetik nerabegarora arteko gaixotasunen inguruko irtenbideak bilatzeko.

Ikerkuntza-jardueraren aitortza

Biocruces Bizkaia Institutuaren nazioarteko aitortza **Europako hainbat proiektu** bere esku uztearen (Horizon H2020) eta guk Europako hainbat

saretan (REFBIO II, European Reference Networks) parte hartzearen bidez irudikatu da.

Gainera, azken hilabeteetan, **talde zientifikoa indartu da, nazioarteko ospea duten hainbat ikerlari bertan sartuta**, Ikerbasque Fundazioaren laguntzari esker.

Kalitatearen adierazle zientifikoak, urte hauetan, bilakaera positiboa izaten ari dira. Hala, **azken urtean, 440 argitalpen indexatu baino gehiago izan dira, batez beste 4,8ko inpaktua izan dute eta horietatik % 47 1. mailako (Q1) aldizkarietan daude.** Nabarmendu beharreko beste adierazle bat **saiakuntza klinikoan eta ikerketa-proiektu aktiboen kopuruaren bilakaera positiboa da (265 eta 250 baino gehiago, hurrenez hurren).**

Biocruces Bizkaia Eraikin Berriaren Bideoa: <https://youtu.be/ffCPD-9yY3Q>

Gurutzeta, 2018ko ekainaren 6a

Informazio gehiago: Komunikazio Bulegoa 94 600 6428 -
Gabinete.ComunicacionOSIEECESI@osakidetza.eus

El nuevo edificio Biocruces Bizkaia se convierte en un equipamiento referente de la investigación e innovación sanitarias

El Lehendakari del Gobierno Vasco ha inaugurado hoy el nuevo edificio acompañado de integrantes del mundo político, económico, científico-técnico y de educación, de la sociedad vasca

Con el nuevo edificio se reestructura la investigación del territorio, pasándose a denominar Instituto de Investigación Biocruces Bizkaia e integrando la actividad investigadora de las OSIs Cruces-Ezkerralde-Enkarterri, Bilbao-Basurto, Barrualde-Galdakao y de la Red de Salud Mental de Bizkaia.

El Lehendakari, Iñigo Urkullu ha inaugurado hoy el nuevo edificio que acoge la investigación sanitaria pública del territorio histórico, bajo la denominación de Instituto de Investigación Sanitaria Biocruces Bizkaia (antes Biocruces). Alineado con las estrategias que se definen en el Plan de Ciencia Tecnología e Innovación (PCTI) y en la Estrategia de Investigación e Innovación 2020 de Euskadi, **el nuevo equipamiento integra la actividad investigadora de las OSIs Cruces-Ezkerralde-Enkarterri, Bilbao-Basurto, Barrualde-Galdakao y de la Red de Salud Mental de Bizkaia.**

El nuevo edificio, que se denomina Biocruces Bizkaia se ubica en el recinto hospitalario del Hospital Universitario Cruces. **Tiene una superficie total construida de 6.131m²** distribuida en las plantas sótano, semisótano, planta baja, y cuatro plantas de altura. **Ha supuesto una inversión cercana a 20 millones de euros y ha contado con la colaboración de Fondos Europeos y del Instituto de Salud Carlos III.**

En palabras del Lehendakari del Gobierno Vasco, “**Este moderno edificio es muestra del potencial creciente de la comunidad investigadora vasca. Símbolo de la apuesta por la investigación y la innovación del sistema sanitario público en Euskadi**”

Las obras se iniciaron en octubre del 2015 y se han desarrollado según lo previsto finalizando a finales del año 2017. Desde entonces, se ha ido equipando **el nuevo edificio con la más moderna tecnología y con todos los recursos necesarios** para dotar a los y las cerca de 800 investigadoras de las herramientas necesarias para poder desarrollar su trabajo de investigación en niveles competitivos. Cuenta con plataformas de Microscopía Confocal, Citometría, áreas de Cultivos celulares, nuevas infraestructuras de Análisis Genético, etc.

La solución por plantas y fachadas –que responde al Plan Funcional del Instituto - es la siguiente:

- **Sótano:** plataforma animalario y unidad de experimentación animal.
- **Semisótano:** muelle descarga, área estabulación de animales, área quirúrgica, zona de crioconservación.
- **Planta baja:** acceso, áreas de dirección y gestión.
- **Planta primera:** plataforma cultivos celulares, citometría de flujo y microscopía, laboratorios, y salas de frío.
- **Planta segunda y tercera:** zonas de gestión, laboratorios y salas de frío.
- **Planta cuarta:** zonas de gestión, salas de reuniones, comedor y zonas de descanso.

Biocruces Bizkaia

Además del nuevo edificio, Biocruces Bizkaia cuenta en su estructura con **dos espacios más en el Hospital Universitario Cruces**, donde ya se venían realizando actividades de investigación: Estos equipamientos, suman 700 y 1.200 m² más, respectivamente, a la actividad investigadora y de innovación

Hito de la sociedad vasca

La puesta en marcha de la nueva infraestructura constituye **un hito transversal a toda la sociedad vasca**. En este sentido, han sido muchos los representantes de la misma testigo de la presentación realizada por el Lehendakari, Iñigo Urkullu, apoyado por el consejero de Salud, Jon Darpón, y el director científico del Instituto, Luis Castaño. Además de los responsables de desarrollar la estrategia de investigación e innovación del Gobierno Vasco, han visitado el nuevo equipamiento:

Por un lado, los miembros de Consejo de Consejo de Ciencia, Tecnología e Innovación: la consejera de Educación, el consejero de Hacienda, la rectora de la UPV /EHU, los rectores de las universidades de Deusto y Mondragón y el secretario de Presidencia del Gobierno Vasco.

Por otro, otras personalidades, la alcaldesa de Barakaldo, el Director del Instituto Carlos III, el presidente de la BBK y los directores científicos de los Institutos Sanitarios Biodonostia y Bioaraba, y diferentes representantes de la Comunidad Científica de Bizkaia.

“Este edificio es una aportación del sistema sanitario al crecimiento social y económico del País, y a la cohesión social. Es una inversión en calidad de vida y bienestar en Euskadi”, ha señalado el lehendakari Iñigo Urkullu

Apuesta por I+D+i

Con el nuevo edificio nace Biocruces Bizkaia. Un instituto de investigación sanitaria que pretende aglutinar al conjunto de investigadores e investigadoras de Bizkaia así como al conjunto de socios y colaboradores que lo deseen. Este moderno

edificio es muestra de la renovación, y la creciente potencia de la comunidad investigadora vasca.

Tal y como ha señalado en su visita el Lehendakari Iñigo Urkullu **“Biocruces Bizkaia refleja la apuesta por la investigación y la innovación, supone un paso adelante para el conjunto del sistema sanitario vasco. Un sistema organizado en torno a tres Institutos de Investigación: Biodonostia, Bioaraba y el nuevo Biocruces Bizkaia. Este nuevo modelo de organización refleja el papel central del sistema sanitario en la I+D+i en Euskadi”**.

“Biocruces Bizkaia es un motor de la investigación biomédica y traslacional que persigue la aplicación de los resultados en beneficio de la salud de los pacientes. Un beneficio para las personas y, también, para el conjunto del sistema sanitario” ha añadido el lehendakari Iñigo Urkullu.

Nos enfrentamos a retos derivados del envejecimiento de la población y la cronicidad, a nuevas tecnologías o mejor dicho a la aceleración en el desarrollo de tecnologías como el Big data, inteligencia artificial, etc. que debemos abordar colaborando.

En este sentido, el lehendakari Iñigo Urkullu ha señalado: **“Este instituto es una plataforma para la colaboración. Forma parte de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. Se complementa con las Universidades, los CIC, BERC y Centros tecnológicos. Integra la colaboración entre agentes y empresas, porque del trabajo conjunto surgen las oportunidades de desarrollo de productos, procesos y servicios.**

Biocruces Bizkaia nace también con una vocación internacional y colaborará con otras Bioregiones europeas, a través de los Proyectos Horizon 2020”.

Biocruces Bizkaia es también una plataforma de apoyo para las nuevas generaciones de profesionales sanitarios que, en el siglo XXI, van a incorporar las actividades de I+D+i en su día a día.

“Biocruces Bizkaia es un ejemplo de la apuesta por la Bio-salud como clave de la Estrategia de especialización inteligente RIS3, un área de investigación con más de cien empresas en Euskadi”, ha afirmado el lehendakari Iñigo Urkullu.

Instituto Biocruces Bizkaia (proceso histórico)

El proceso se inicia en el Hospital Universitario Cruces, que durante muchos años ha sido un referente sanitario en asistencia, docencia e investigación. De hecho, su Unidad de Investigación es una de las más antiguas, acreditada por el FIS, en 1993, y lleva participando en las estructuras de investigación del Instituto de Salud Carlos III (RETICS, CIBERs y Plataformas) desde sus inicios.

En el año 2008 se crea Biocruces, y en 2015 obtiene su acreditación como instituto de investigación, de acuerdo a la estrategia propuesta desde el Instituto de Salud Carlos III, de desarrollo de los institutos de investigación sanitaria como estructuras organizativas de promoción y desarrollo de la Investigación en los hospitales, con el fin de:

- Promover la investigación biomédica, epidemiológica, de salud pública y en servicios sanitarios
- Fundamentar científicamente los programas y políticas del sistema sanitario
- Potenciar de forma preferente la investigación traslacional (aplicar los conocimientos en el proceso hospitalario)

En 2018, el Departamento de Salud el Gobierno Vasco define su nueva estrategia: pasa a denominarse Biocruces Bizkaia integrando a cuatro de las organizaciones sanitarias de Osakidetza en Bizkaia: **las OSIs Cruces-Ezkerralde-Enkarterri, Bilbao-Basurto, Barrualde-Galdakao y de la Red de Salud Mental de Bizkaia**. Las entidades que lo conforman son: Departamento de Salud, Osakidetza, Bioef, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), y Fundación BBK.

Biocruces Bizkaia ha establecido una red de alianzas con los agentes biotecnológicos, destacándose los acuerdos con CIC bioGUNE, BCAM e Ikerbasque. Como objetivo principal, orienta su conocimiento a la práctica asistencial:

- **Promover las investigaciones biomédicas, epidemiológicas, de salud pública y en servicios sanitarios.**
- **Potenciar las investigaciones traslacionales** orientadas a acelerar el traspaso de los descubrimientos científicos más avanzados a la práctica asistencial.
- **Fundamentar científicamente los propios programas y políticas del sistema sanitario;** reforzar la calidad de los servicios de salud con una eficaz implementación de los avances científicos en la prevención, diagnóstico y tratamiento de las enfermedades, los cuales redundarán en un cuidado más eficaz de los pacientes.
- **Impulsar la integración de la propia práctica clínica con la investigación científica avanzada y la transferencia al tejido empresarial.**

Estructura científica de Biocruces Bizkaia

El personal investigador está compuesto por **800 profesionales dotados de una elevada cualificación** con perfiles básicos y clínicos complementarios que, junto al personal pre-doctoral y técnico, desarrollan líneas científicas que tratan de dar

respuesta a las preguntas clave relacionadas con las patologías humanas más importantes de nuestra época

Las Líneas Científicas del Instituto Biocruces Bizkaia son:

- **Atención Primaria, Prevención y Enfermedades Crónicas.**

Los investigadores de esta área diseñan y evalúan intervenciones innovadoras sobre los principales determinantes de la salud, como los hábitos de vida (alimentación, actividad física, tabaco, alcohol) y otros factores de riesgo asociados con enfermedades (hipertensión, dislipemias, diabetes, obesidad, estrés).

- **Cáncer.**

El cáncer es un grupo heterogéneo de más de 200 enfermedades diferentes. Supone uno de los problemas de salud con mayor repercusión sanitaria y social en los países desarrollados, debido a su incidencia y letalidad, a las secuelas que provoca y a los recursos sanitarios que se consume. En las últimas décadas se ha constatado un aumento en la incidencia del cáncer debido a la mayor longevidad de la población, al mejor acceso sanitario, a factores medioambientales, estilos de vida y hábitos de consumo, y a las nuevas tecnologías diagnósticas que permiten diagnósticos más precoces e incidentales. El ámbito de estudio abarca todas las neoplasias malignas sólidas y hematológicas en todos sus aspectos, desde los epidemiológicos hasta los meramente clínicos, pasando por los biológicos. El objetivo de los diferentes grupos debe ser el realizar una investigación en cáncer a nivel básico, aplicado y clínico. Una parte importante de la actividad estará centrada en aspectos traslacionales que favorezcan una rica y productiva interrelación entre las ciencias biomédicas básicas y la oncología aplicada, de tal forma que los

resultados redunden directamente en un beneficio para los pacientes y para la sociedad en general.

- **Endocrinología, Metabolismo, Nutrición y Enfermedades Renales.**

Las líneas que se desarrollan en esta área son el estudio de las alteraciones tumorales neuroendocrinas para la caracterización molecular y tisular que permita un tratamiento más eficaz; la investigación en diferentes trastornos metabólicos congénitos, tanto de lípidos, hidratos de carbono, como de aminoácidos, intenta definir estrategias diagnósticas precoces que permitan una adecuada prevención y un tratamiento temprano; y los trastornos del metabolismo calcio/fósforo y las tubulopatías renales; áreas emergentes de investigación dirigidas a la caracterización genética de los trastornos clínicos y a la definición de estrategias terapéuticas más eficaces.

- **Enfermedades autoinmunes, inflamatorias e infecciosas.**

La línea de investigación de esta área tiene en común su base frecuentemente inflamatoria, de origen ambiental, infeccioso, metabólico o autoinmune, así como un curso habitualmente crónico. Tiene como principal objetivo la mejora del pronóstico y la calidad de vida de los pacientes. Además, también debería contribuir a atenuar el creciente impacto social y económico producido por estas enfermedades.

- **Enfermedades del Sistema Nervioso.**

Las líneas que se desarrollan en esta área tienen que ver la correlación clínico-patológica (estudios clínicos y neuropatológicos), la neurología funcional a través del diagnóstico y seguimiento por medio de técnicas de neuroimagen (RMN funcional, PET) y la profundización en el estudio de marcadores biológicos. Todo ello con el objetivo de mejorar la calidad de vida y reducir el impacto de estas enfermedades.

- **Innovación en Cirugía, Trasplante y Tecnologías para la Salud..**

Las líneas a desarrollar en esta área se enfocan a distintas tecnologías e innovaciones en el área de cirugía, y procedimientos y dispositivos clínicos muy próximos a la clínica, que permitan una rápida traslación, y también aquellos relacionados con la calidad y la seguridad del paciente. En esta área se plantea un desarrollo importante de la Bioinformática algebraica y Métodos Computacionales aplicados a la Medicina

- **Salud materno-infantil y reproducción asistida.**

Las líneas de investigación son el cuidado de la salud fetal, el estudio de las malformaciones congénitas que afectan al corazón, cerebro y ojos y el avance en el diagnóstico de ciertas enfermedades genéticas, especialmente en la discapacidad intelectual y las enfermedades hereditarias, el cáncer pediátrico, particularmente en los tumores cerebrales y la predisposición genética al cáncer, y algunas enfermedades raras como la histiocitosis o la osteogénesis imperfecta, así como los cuidados críticos pediátricos. También se desarrollan en esta área, la investigación e innovación en reproducción y la mejora de la salud fetal, en las mujeres embarazadas y en recién nacidos. La experimentación animal, investigación básica y estudios clínicos son esenciales en la búsqueda de soluciones en esterilidad, embarazo, parto y en las enfermedades que afectan desde la época fetal a la adolescencia.

Reconocimiento a la actividad investigadora

El reconocimiento internacional a Instituto Biocruces Bizkaia se ha visualizado a través de la concesión de **diferentes proyectos Europeos** (Horizon H2020) y nuestra incorporación en diferentes Redes Europeas (REFBIO II, European Reference Networks).

Además, durante los últimos meses, **se ha reforzado el equipo científico, con la incorporación de investigadores de prestigio internacional**, gracias a la colaboración de la Fundación Ikerbasque.

Los indicadores científicos de calidad están evolucionando en estos años de forma positiva, **alcanzando el último año más de 440 publicaciones indexadas, con un impacto medio de 4,8, y de las que el 47% están en revistas de 1er cuartil (Q1)**. Otro indicador a destacar es la evolución positiva del **número de ensayos clínicos y de proyectos de investigación activos (más de 265 y 250, respectivamente)**.

Vídeo del nuevo edificio Biocruces Bizkaia: <https://youtu.be/ffCPD-9yY3Q>

En Cruces, a 6 de junio de 2018

Más Información: Gabinete de Comunicación

94 600 6428 -Gabinete.ComunicacionOSIECESI@osakidetza.eus